

ANDER IZAGIRRE

BELENGO FURGONETA

Goizeko zazpitan nire furgonetara sartu nintzenean, aljeriar bat lotan zegoen barruan. Bai, aljeriar bat, Aljeriako gizon bat, bibote eta guzti.

Hasieran ez nintzen jabetu. Abenduaren 20an, ordu horretan, gaua hotza eta iluna zen. Peugeot J5 zaharraren atea ireki, bolantearen aurrean eseri, motxila alboko eserlekuan utzi

eta kontaktuan giltza sartu nuen diesel motorra berotzen hasteko. Orduan ahots bat iritsi zitzaidan: «Egun on». Irratia zela pentsatu nuen, esatari baten agurra, baina itzalita zegoen. Leihotik burua atera nuen eta ondoko kotxeari «egun on» erantzun nion, ilunpean norbait egongo zela pentsatuz. Ez zegoen inor. «Kaixo» entzun nuen berriz ere, baina oraingotan nire atzean oso gertu. Jiratu egin nintzen eta furgonetaren

atzeko aldean, ilun antzean, gizon bat ikusi nuen erdi makurtuta, zutik jartzen hasita, besoak mugitzen.

Garrasi egin nuen. Eta gero beste oihu bat: «Zer egiten duzu hor?!». Sabaiepean makurtuta, urduri, doinu arabiarrez erantzun zidan: «Lasai, lasai! Nik lo bakarrik! Ez da ezer gertatzen!». «Baina zer egiten duzu hemen!». «Lo bakarrik, benetan. Atzo hotz handia, lotara sartu nintzen, atea irekita zegoen».

Berrogei urte inguruko gizona zela ikusi nuen. Furgonetaren atzeko aldean nire koltxonetan bat eta nire lo-zakua zabaldua zeuzkan. Bere manta bat ere bai. «Banoa, banoa, ez kezkatu. Lasai, gizona. Ez dizut ezer lapurtu!». «Badakit, badakit». Nahita ere, laugarren eskuak furgoneta zaharrean erreminta-kaxa, lo-zakua eta Supertrampen zinta besterik ez zeuzkan lapurtzeko.

Urduri jarraitzen zuen gizonak, manta eta arropak presaka jasotzen, zapatak janzten, ahopeka barkamena eskatzen. Non goa zen galdetu nion. «Egian bizi naiz, gela batean, baina neure herrialdera oporretara joan nintzen eta bueltakoan gela

beste norbaitek hartu dit». Ez, ea zein herrialdekoa zen, Maroko, Aljeria? «Bai, Aljeria». Pixka bat lasaitu zen, galderaren bat egin zidan. «Orain lanera zoaz, ezta?». «Bai». Furgonetatik irten zenean, bostekoa eman genion elkarri eta ni lasaitzen saiatu zen: «Ez naiz berriz sartuko, e?».

Kalean gora abiatu zen, manta poltsa handi batean gordeta, mantso eta baldar, erdi lo eta erdi izututa oraindik, zero azpitik gradu batekin eta ilunpetan.

Atea ixtera nindoala, atun latabat ikusi nuen furgoneta barruan. Gizonak zabaldu baina jan gabe utzi zuen.

Errepidean nindoala, ezin nuen burutik kendu gizon hark



MAIDER IANTZI

SUTONDOAN

Amarekin albumak atera eta momentu politak pasa ditugu testu hau ilustratzeko argazki bila, atzendutako ume aurpegiak berriro ezagutuz. Ez dugu Eguberrietako irudi sobera. Lehenengoan hiru urte ditut eta negarrez hasiko naizela ematen du. Ez omen zitzaidan Olentzerotako arropa janzteagustatzen. Sail bereko bertze argazki batean lehengusu baten eskutik agertzen naiz, adin berekoak gara eta bi buru handiagoa da bera. Hortik hurrengo irudira bost urteko tartea egonen da, argazkilariaren estudioko esperimentziari buelta emateko behar izan genuena, gutti gorabehera. Hau aukeratu dut, anaiarekin nagoelako eta berari ere ilusioa egiten diolako egunkarian azal-

tzeak ;-)

Gainera, berekin lotzen dut Olentzeroren fantasia.

Ez naiz oroitzen gizon potolo hau bazela sinesten nuen garaiaz, baina bai Aitorrentzat istorioak asmatuz jostatzen nintzen eta magia bizitzen nuen denboraz. Gogoan dut pasilloan zintzilik jartzen genuen papezko bota gorria, barrenean jateko zerbaitekin, eta salako leihotik mendira begira (orduan mendiak ikusten ziren) kea ateratzen zen edozein base-rri seinlatu eta Olentzero han zegoela esplikatzeko niola, bere bizimodua nolakoa zen kontatu, zer ari zen une horretan... Izugarritzko gozamena zen; den-dena sinesten zuen!

Eguberrietako nire hitzak ketan eta sutan kozinatuak dira. Beheko suan aurpegia berotuz, pentsamenduetan sartuta begirada lausotu arte. Garren dan-

tza behatuz, egurrarekin egiten duten jolasa, nola jaten duten bokaduz bokadu eta nola desagertzen diren biak elkarrekin. Egurra eman eta berriro besta. Aurpegiarekin aspertzean, hankak luzatu eta oinak berotu. Anaia ere hor egoten da suak sorginduta, *atta* eta osabaren bat ere inguruan beti. Gainerakoak, etxean barna dantzan.

HANDITUTAKO HUTSUNEAK

Eguberriak kristala kolpatzen duten zaparradak dira. Hotza dira, abarken barrenean dardarka sufritzen ari diren oinak. Ilunbea dira, falta direnak, handitutako minak eta hutsuneak. Beldurrak. Denboraren ihesaldi gordina.

Horregatik prestatzen ditut hitzak sutan. Batzuetan egosi, bertzetan berotu, zenbaitetan erre. Goxatu, epeldu, argitu,



bezperan egin zuen erronda, kotxez kotxe, ilunpetan atea probatuz, mirariz zabalik zegoen auto bat aurkitu eta izotzetik babesteko itxaropenez. Atea itxi gabe topatzean hartuko zuen poza irudikatzen nuen, etzateko lekua, koltxoneta eta lo-zakuak zeuzkan furgoneta bat hain justu. Furgonetan neguan pasatu ditudan gau urriak gogoratu nituen, arropa asko jantzita lo-zaku barruan pasatako hotzak, eta pentsatu nuen gizonak dardarka igaroko zuela gaua, dardarka, bakarrik eta beldurrez.

Eta pentsatu nuen Eguberrietako istorio zentrala bizi berri nuela. Aljeriarraren istorioa –pertsone bakar bat, lurralde

arrotzean baztertua, gau hotzak pasatzeko estalperik gabe– duela bi mila urteko bikote haren istorioa baita, haurdun zegoen emakumearena eta haren senar arotzarena.

Istorio indartsua da, oroitzea mereziko lukeena, geure buruari galdera zuzena egiten diolako, arrotzak, besteak nola tratatzen ditugun galdetzen digulako. Hain interpelazio zuzena denez, kaleetako argi koloretsuekin, erosketen iskanbilarekin eta oparien zalapartarekin isiltzen dugu. Beharbada, bi mila urteren buruan berdin jokatzen dugula ez onartzeko: ez ikusiarena egiten diogu, beldurra diogu, bota egiten dugu aterpe bila dabilena.

mugitu, piztu, dantzatu, irentsi, jan, txispatu.

Eguberriak mila gezurrez elikatutako muntaia handia dira, modu batean edo bertzean irensten gaituena. Gehiegikeria, zentzurik gabeko kontsumoa. Konpromisoa, betebeharra, protokolo zorrotza, kortse itogarria, deserosotasuna.

ETA NOSTALGIA, UR GAZIA

Baina guztiaren gainetik aldarrikatu nahi dudana bilgunea da, amaxiren sutondoa. Xumea, naturala, intelijentea, txinpartaduna, eta pikardia puntu bat ere bai. Denbora pasatzen ez dela dirudien lekua. Mugitzen ez dena. Betiko dirudiena. Ondoan jarri eta belarriak zabaltzen ditugu kontuz elikatzeke, istorio zahar eta berriz, urtetan ondutako jakinduriak. Oroimen apartaz txunditzen gara, eta zahartzen garenean horrelakoak izanzen garen galdetzen diogu gure buruari.

Galtzerdi batzuk ekarri zizkion amaxiri Olentzerok, eta kezkatuta zegoen, ez zegoela denbora luzerako eta ez zituela

aprobetxatuko, horri bueltaka ibili zen behin eta berriz. Marradun galtzerdi berdeak. Horiek jantzita agurtu gaituzu: «Etorri nahi duzuelik, etorri beldurrik gabe». Oroitzapen onak etortzen zaizkit, debate ttikiak, berenduak, «xokolte esnia», ze gustura egoten zinen guri begira, gu elkarrekin ikusita.

Hitz jarioa. Hitz sumendia zen zurea, azkena itzali dena. Nora joan da orain buru argi hori? Nora hitzen laba bizia?

Guregana. Belarritik sartu ziztzaigun eta borborka aterako zaigu, adibidez testu honetan. Lezio ederra eman diguzu orain ere, duintasunez beteta gorputz ttiki eta azal gastatua. Egindako bidearekin gustura, konforme.

Eguberriak zikloak dira, bukatzea eta hastea. Sinestea eta inozentziari eustea, zentzu positiboan, gauzak posible direla pentsatuz. Umeek egiten dute, eta zaharrek ere bai. Aurten bertze mahai batean bazkalduko duzu, sinesten zenuen bezala, eta zauden lekuraino eramanez dizkizugu kantuak, txanpaina eta bilgunea.

